

PISTEN JOLASA

4- Taldean galderaren erantzuna eztabaidatu ostean, begiralearengana itzuli beharko dute frogak dioena eginez. Froga burutzeko aparteko materialen bat beharrezkoa balitz, eskura utziko genieke.

5-Froga ondo burutu badute, eta galderaren erantzuna egokia bada, begiraleak entsalada prestatzeko osagai bat emango die. Osagaiarekin batera hurrengo gunera joan ahal izateko pista eskuratuko dute.



6- **ENTSALADA PRESTATU AHAL IZATEKO BEHARREZKOA DA OSAGAI GUZTIAK BILTZEA.** Talde bakar batek ezin ditu osagai guztiak lortu, talde guztien artean osatu behar dute Dino-entsalada.

7- Osagai guztiak bilduz gero, **SARIA** izango dute umeek.

8- Talderen batek osagaiak lortzeko zailtasunen bat izango balu (galdera ezin erantzun, froga ondo ezin bete...), begiralearen laguntza izango luke. **Nahiz eta umeei ezer ez esan**, azkenean talde guztiek lortuko dituzte beren osagai guztiak. Sari moduan urtaro bakoitzeko garaian garaiko produktuekin osatutako entsaladaren errezeta eskuratuko dute.

9- **Jolasaren iraupena:** 90 minutu

10- Pistatik pistara 10 minutuko tarteak izango dute galdera erantzun eta froga burutu ahal izateko.

11- Begiraleak pista berriak banatzeko, talde guztiek, beraien galderak erantzunda eta frogak burututa, erdigunean bilduta egon beharko dute.

12- **Adina:** LH-ko 3. eta 4. mailak



Helburua: "Dino-entsalada" eder bat prestatu ahal izateko gelakide guztien artean beharrezko osagaiak biltzea.

1- Gela bost taldetan banatuko dugu, talde bakoitzari kolore bat ezarriz. Ikastetxe bakoitzean bost gune bereiziko ditugu, eta gune bakoitzean koloretako pistak ezkutatuko ditugu leku ezberdinetan.

2- Begiralea "erdigunea" deituko diogun puntu zehatz batean geldirik egongo da.

3- Txoko bakoitzean talde bakarra egon ahal izango da. Bertara heldu ahal izateko, begiraleak taldeari joan behar duen txokoari buruzko pista emango dio. Taldeak txokora heltzean, beraiei dagokien kolorearen galdera eta froga aurkituko ditu.



Adib.:

GALDERA

FROGA

Tripako mina kentzeko zein sendabelar erabil daiteke?

(Adib.: Kamamila)

Kinkirrinean begiralearenganaino joan